

 Irurtzun-Andoain autobidea

Nafarroako Gobernuak ukatu egin du Lurraldearekin negoziazioa dagoenik

Nafarroako Parlamentuak onartutako trazaketa aurrera eramango duela dio

Nafarroako Gobernuak ez duela autobidearen aldaketak Lurraldearekin negoziatu adierazi zuen atzo Miguel Sanz lehendakariordeak, eta Parlamentuak onartu zuen trazaketa dela aurrera eramango dutena, horretarako erabaki zen epean.

T. SATRUSTEGI / IRUÑEA

Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko lehendakariordeak atzo adierazi zuenez, «autobidearen Nafarroako zatiari buruz ez da negoziatuko ez Lurraldearekin ez beste erakunde batzuekin ere». Deklarazio instituzional baten bidez aditzera eman zuten Gobernuaren jarrera, eta bertan Leitzako Agirian sinatutakoa berretsi dute, hau da, autobidea aurrera ematea Parlamentuak erabaki zuen trazaketarekin, eta horretarako jarri ziren epeetan, ETAren mehatxuei amore eman gabe eta terrorismoaren aurka.

Gobernuak hartutako akordio honekin gai honi buruz sozialisten jarrerari erantzuna ematen diote, Miguel Sanzen esanetan. PSN-PSOEk, bere ustez, gizartea nahastea besterik ez du nahi Gobernua Lurraldearekin negoziatzen ari dela esatean, hau ez baita horrela.

Aldaketa teknikoak izan direla adierazi zuen, eta ez bakarrik Gobernu honekin, baita sozialisten legegintzaldian ere. «Au-



Lopez Borderias kontseilariak eta Sanz lehendakariordeak Gobernuaren jarrera azaldu zuten.

JOXE

tobideko lanak hasi zirenetik aldaketa tekniko asko izan dira, teknikariei beharrezkoak iruditzen zitzaizkienak, trazaketa ofiziala ezertarako ukitzen ez zutenak», azaldu zuen lehendakariordeak.

NEGOZIAKETARIK Era berean, **EZ** Gobernuak **LURRALDEAREKIN** ez duela inoiz negoziatu Lurraldearekin azpimarratu zuen, «koordinadora honek ez du negoziatu ezta Herrilan Saileko teknikariekin ere. Beraiek jakingo dute zer esan nahi zuten Gobernuarekin kontaktuak izan zituztela adieraztean», gaineratu zuen Miguel Sanzek. Indarkeriaren alde dau-

den taldeekin ez dutela negoziatuko azaldu zuen, ekintza terroristak gaitzesten ez duten taldeekin ez dagoela hitzegiterik zioen.

«Aldaketa teknikoak lan bat egiten ari den bitartean sortzen dira, sortzen diren arazoak konpontzeko edo zati bati eman zaion tratamendua ez dela egokiena garbi dagoenean. Bestalde, alde eragindakoek egiten dituzten alegazioak onartzen badira egin daitezke aldaketa teknikoak, eta egiten dira» adierazi zuen Borderias Herrilan kontseilariak.

Urralbururen Gobernuak ere aldaketa asko egin zituela zioen kontseilariak, eta orduan «UPNk ez zuen jokabide hori kritikatu, erantzukizun politikoa dugulako,

eta aldaketa horiek trazaketa ofiziala aldatzen ez zutelako. Orain guk gauza bera eskatzen diogu PSNri, erantzukizun politikoa izatea aldaketa teknikoak hauek egiterakoan, eta ez kritikatzeara», azaldu zuen Borderiasek.

PSNk eskatutako Leitzako Agiria sinatu zutenen bilera egiteko beharrik ez dagoela azaldu zuten, egoera aldatu ez delako. EAJ eta HBren arteko elkarriketei buruz, Gobernuak ordezkariek ez zuten ezer esan nahi.

Sozialistek, berriz, bloke demokratikoa indartu behar dela terrorismoaren aurka azaldu zuten komunikadu baten bidez, atzoko atentatua gaitzesten zuten bitartean.

HB: «Elorzak presoen borroka politikoa dela aitortu du»

DONOSTIA

Odon Elorza Donostiako alkateak, El Salto del Negroko espetxean euskal preso politikoeke egindako gose greba dela eta izan duen jarrera salatu du Herri Batasunak. «Alkatearen jarrera erantzukizunik gabekoa eta kol-darra izan da 41 egun iraun duen euskal presoen greba dela eta» adierazi zuen atzo HBk.

Elorzak gartzeleratuen senitartekoekin erakutsitako portaera ere gogor kritikatu zuen alderdi honek, «senideek udal batzarrean beren hitza entzutea eskatu zutenean, alkatea bilkura gelatik aterata zen». Era berean, alderdi abertzalearen ustetan, «alkatea giza eskubideen errespetuarekin duen jarrera erabatekoa dela ezin du baieztatua».

Bestalde, Odon Elorzak eskubideen «irakurketa interesatua eta bide bakarrekoa» egiten duela salatu zuen Herri Batasunak. Alderdi abertzaleak Garraixi Ixilari udaletxeko bilkura gela abenduan utzi eta Amnistiaren Aldeko Batzordeari lokalik ez zaiola uzten esan zuen. HBk adierazi zuenez, lokal hauek torturari buruzko hitzaldiak egiteko izango lirake. Ildo beretik, Donostiako alkateak euskal presoen borroka buruz ez zuela hitzegiten nahi gai politikoa zelako esatea, «presoen borrokaren izaera politikoa dela aitortzea» esan nahi du HBren ustez, eta ere poza agertu zuten horregatik.

Auzitegi Nagusiak EA eta PPren aurkako kereila artxibatu du

DONOSTIA

Eusko Autonomi Elkarteak Auzitegi Nagusiak Jaurlaritzako Barne Sailak EA eta PPko ekutiben aurka aurkeztutako kereila artxibatzea erabaki du, Vasco Press agentziak jakitera eman duenez. Kereilan Barne Sailak irain eta kalumnia delituak egotzi zizkien bi alderdiotako buruzagiei, egindako adierazpen batzuetan departamendu honetan zegoen uestezko ustelkeria salatzegatik, batez ere Lekeition La Emperatriz hostala eraikitzeak Bizkaiko Foru Aldundiak emandako baimenaren kasuan.

Juan Porres eta Leopoldo Barrera esanetan, Retolazaren agintean zegoenean ustelkeria orokorra zen Barne Sailean eta Administrazioarekin zerikusirik zuten enpresetan Kontseilaritza honetako zenbait goi funtzionariren partaidetza agerian utzi zuten.

Auzitegi Nagusiak hartutako erabakian esaten denez, adierazpenen zehaztasun faltak indarra kentzen dio irainari, ez baita dute esaten nori daude zuzenduta.

Posten auzia epaitegian

Posta tirorik ez zutela egin deklaratu zuen poliziburuak

DONOSTIA

Jose Piris Perpén, Polizia Nazionaleko inspektoreburuak atzo deklaratu zuen Donostiako Entzutegi Probintzian posten kasuaren epaiketaren lehen egunean. Piris eta bere agindupean zeuden beste lau polizia epaituko dituzte 1989ko Donostiako Salbe egunean izan ziren istiluengatik. Lau pertsona postaz zauritu zituzten abuztuaren 14eko arratsaldean poliziarekin izandako istiluetan.

Bere agindupean zeuden lau poliziek (Antonio Martin Grani-zo, Jose Luis Salcedo Arin, Ernesto Polo Castillo eta Jose Antonio Perez Castro) ez zutela

posta tirorik egin esan zuen atzo Jose Pirisek. «Ordenu publikoko ekintza batera joaten garenan ez da postarik eramaten» deklaratu zuen epaiketan eta egun horretan zuten materiale bakarria gomazko pilotak, ke poteak eta 9mm parabellum balak zirela ere azaldu zuen. Onartu egin zuen hala ere, orduan zeramaten 'Franchi' eskopetek posta kartutxoak ere jaurti ditzaketela.

Posta tiroak egin ziren kale-tara (Garibai eta Peñafloredako elkargunea) lehendabizi furgonetan eta gero oinez joan zirela bere taldeko poliziak esan zuen Pirisek. «Orduantxe 600 pertsona inguruk osatutako talde bat ikusi genuen Sanferminak baili-



Akusatutako poliziak atzo hasi zen epaiketaren lehen saioan. JUAN CARLOS

ran korrika zetozela, eta geldirik egon ginen» azaldu zuen, eta jendea ondolik pasata egin zuela ihes. Berak ez zuela ez eskopeta, ez kaskorik adierazi zuen, nahiz eta gainontzekoek bai, «baina

inork ez zuen tirorik egin, bestela entzun izango nuen».

Epaiketa aste guzti honetan izango da, gainontzeko poliziek eta lekukoek ere deklaratu behar dutelako.